

**“SANCTI SPIRITUS” UDALAREN ZAHARREN EGOITZAKO BEZEROENTZAKO  
ESKU HARTZE INTEGRALA ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEKO DEIALDIA,  
PUBLIZITATEAGAZKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKOA**

**IRAGARKIA**

**1.- Erakunde esleipen emoilea**

Erakundea: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua

Espedientearen tramitatzaillea: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua

**2.- Kontratuaren xedea**

Zehaztapena: “Sancti Spiritus” Udalaren Zaharren Egoitzako bezeroentzako Esku Hartze Integrala zerbitzua ematea.

Burutzeko lekua: Bermeoko “Sancti Spiritus”

Burutzeko epea: Urte bat, 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

**3.- Tramitazioa, jardunbidea eta esleipen modua**

Tramitazioa: Ohikoa

Prozedura: Publizitateagazko prozedura negoziatua

**4.- Kontratuaren oinarritzko aurrekontua:** 77.487,00 €-koa da, BEZ kanpo.  
BEZari dagokion zenbatekoa 6.198,96 €-koa da.

**5.- Behin behineko bermea:** Lizitazio prezioaren %3, hau da, 2.324,61 €

**6.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea**

Lekua: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua

Helbidea: Areilza 4

Herria eta posta kodea: 48370 Bermeo

Telefonoa: 946179160



7.- **Esleipendunak betebeharreko baldintza bereziak**

Administrazio baldintza zehatzen Agiriko 18. Atalean finkatzen diranak.

8.- **Proposamenen aurkezpena**

Lekua:

- Erakundea: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua
- Helbidea: Areilza 4
- Herria eta posta kodea: 48370 Bermeo
- Ordua: 9:00 – 14:00

\* Larunbatetan 10:00 – 13:00 (BERH@Z BULEGOA. Ertzilla  
kalea 6-8 48370 BERMEO)

Epea: 10 egunetan lizitazio iragarkia argitatzen danetik hasita.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Administrazio baldintza zehatzen  
orrian zehatzen dana.

9.- **Esleipena**

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako proposamenak jendaurrean irekiko dira, Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. Telefonoz edo faxez emongo jake aurretiaz horren barri lehiatzaileei.

B kartazala zabalduko da arinago (erizpide ez matematikoak) eta, behin puntuatuta dagozanean, C kartazala (Proposamena eta erizpide matematikoak) zabalduko da jendaurrean.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deuto esleipen proposamena.

Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

1. Eskaintza ekonomikoa: 30 punturarte baloratuko da. Alderantzizko hiruko erregela erabiliko da diru proposamenean.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen teknikoa: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 50 punturarte baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortu beharko dira. (Proposamen teknikoa, Bermeoko beharrian eta errealitatearen arabera izan beharko da. Txosten honek, ekintza, esku hartze eta sare sozialarekin egingo dan koordinazioa azaltzen dauan programa zehaztua euki behar dau).



3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 5 puntu, gehienez 20 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).

Bermeon, 2015eko irailaren 28an

